


Uretan hondoratzen ez den metala asmatu dute

NEW YORKEKO ESKOLA POLITEKNIKOAK



NEW YORKEKO eskola politekniko eta Deep Springs enpresako ikerlariek oinarri metalikoa duen konposatua sortu dute. Material berriak magnesiozko oinarria du, eta hartan txertaturik ditu siliziozko esfera hutsak.

Material horren dentsitatea 0,92 g/cm³koa da, urarena baino txikiagoa, eta beraz ez da ele-

mentu horretan hondoratzen. Gainera, siliziozko esferei esker, suhiltzaileen ur-mangeretatik atera ohi den urarena baino 100 aldiz presio handiagoa jasan dezake puskatu aurretik.

Material berriak erabilpen ugari izan ditzake ontzigitzan, automobilgintzan eta industria militarrean, ibilgailuen blindatze sistema arintzeko. Izan ere, AEBetako armada proiektuaren finantzazioan parte hartzen ari da. ■

Amazon eta enparauentzat beste lehiakide bat: Google

ASTE GUTXI BARRU, Googlen bilaketak egitean, “erosi” botoia ikusiko dugu. Orain arte Amazon, e-Bay eta antzeko atariak eduki dute lidergoa salmenten alorrean, baina laster Google izango dute lehiakide gogor.

Oraingoz “erosi” botoia ez zaio erantsiko bilaketa baten ondorioz era arruntan eskaintzen den erantzun sortari, emaitza-orri horretan nabarmenduta azaltzen diren zerbitzuei baizik. Horretarako, zerbitzu horien jabeek kuota finkoa ordaindu beharko diote Googleri, eta hark denda birtuala eskainiko die.

Googlen urrats horren arrazoi nagusia omen da Amazonen bilatzailea gero eta gehiago erabiltzen dela. Hartara, Googlek arriskuan ikusi du bilatzaileen alorrean duen nagusigoa. Espero dezagun, bederen, lehia hasi berriak abantailaren bat ekartzea erabiltzaileei. ■



Grafenoaren lehen erabilerak

Grafenoa aurkitu zenetik hamar urte baino gehiago igaro direnean, material horretan oinarritutako lehen aplikazioak gizarteratze bidean daude. Berriki, Manchesterreko Unibertsitatean grafenoazko tinta erabili dute antena erradioelektriko bat inprimatzeko. Diotenez, “gauzen internetera” iristeko aukera emango du aplikazio berriak.

ttiki.com/339625
(Frantsesez)

Uda gero eta luzeagoa da European

Sevillako Pablo de Olavide Unibertsitateko (Espainia) ikerlarien arabera, European, azken 35 urteotan, uda sei egun luzatu da batez beste hamarkada bakoitzeko. Esan gabe doa datu horrek ez duela balio Europa osorako, baina joera orokorra zein den adierazten du.

ttiki.com/339626
(Gaztelaniaz)

Droga kontsumoa munduan

Adelaidako Unibertsitateko (Australia) Linda Gowing-ek zuzendutako ikerketa-talde baten arabera, munduko populazioaren %5 alkoholikoa da, hau da, 240 milioi pertsona, eta %20 erretzailea, hau da, 1.000 milioi pertsona. Beste substantzia batzuen inguruko datuak lortzea zailagoa da, baina drogak injekzioz hartzen dutenak hamabost milioi inguru direla uste da.

ttiki.com/339627
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

www.iametza.com
T.943 37 67 16